

# SARRERA

ERRAMUN OSA

EUSKALTZAIN URGAZLEA ETA  
EUSKALTZAINDIKO IDAZKARIORDEA

# SABINO ARANAREN BEGIRADA LUZEA

**E**z gara etorri gorpua usteldu orduko autopsia egitera, haren berezitasun miresgarrien deskripzioa egitera hura hil duten eta beste hizkuntza batez ordeztu nahi duten horientzat. Sabino Aranak Hendaian, 1901eko irailaren 16an, eginiko adierazpenak dira. Izan ere, duela ehun eta berrogeita hamar urte Abandon jaio zenaren itzala ez zen abertzaletasunera, ez eta kontzientzia nazionala eta subjektu nazional baten osagaiak eta ikurrak sortzera mugatu, euskara kontuetan ere saiatu zen, gure hizkuntza biziarazteko eginahalak izanik bere jardunaren ardatz nagusia.

XVIII. mendearen amaieran, Frantziako Iraultzaren hasieran, herrialde horretako biztanleriaren laurden batek hitz egiten zuen frantsez... baina giza eskubideak aldarrikatu ostean, berdintasunaren izenean, agintari berriek hizkuntza ofizial bakarraren ideologia indarrean jarri zuten. Gertaera horrek eragin zabala izan zuen Europan, bereziki euskara bezalako berezko hizkuntzei neke handiz eusten zieten hizkuntza erkidegoetan. Inguruabar horretan, XIX. mendean zehar, Frantziak eta Espainiak eskuartean zituzten makulu guztiak baliatu zituzten, bai eta berriak sortu ere –esate baterako, derrigorrezko eskolaldia–, subjektu nazional bakarra eta bateratua sortzearren... eta dena ez zen hizkuntza eta kultura kontuetara mugatu, lurralde bakoitzak lehenagotik zituen bestelako berezitasunak ezabatzeke berebiziko ekina antolatu baitzuten.

Jokabide horrek, jarduera ekonomikoaren eraldaketak, hirien indartzeak, Industria

Iraultzaren eraginez sortutako migrazio mugimenduak, norberaren hizkuntzarekiko eta kulturarekiko kontzientziarik ezak –bereziki garaiko klase gidariaren jarrerak–, eredu bateraturik ez izateak eta abarrek euskararen hizkuntza erkidegoa makaldu zuten, horrenbeste non XIX. mendean zehar euskararen hil kanpaiak geroz eta sarriago eta ozenago entzuten ziren... Sabinok ez zien, ordea, hil kanpaien harrabotsei kasurik egin. Ez zion etsipenari tarterik laga, ez eta ustezko ezinaren aurrean amore eman ere. Iraganetik jasotakoari eman nahi zion bizipoza, bai eta etorkizuna ere. Euskara ikasi eta Hendaian zera aldarrikatu zuen: <<Euskara ez dago hilik, hil zorian beharbada, eta maite dugulako ez diogu etsipenik eman nahi eta beraren gaitza ikertzera gatoz bere onera ekartzearren>>.

**Sabinok ez zien, ordea, hil kanpaien harrabotsei kasurik egin. Ez zion etsipenari tarterik laga, ez eta ustezko ezinaren aurrean amore eman ere. Iraganetik jasotakoari eman nahi zion bizipoza, bai eta etorkizuna ere**

Eta, onera ekartzeko, bi baldintza azpimarratu zituen: <<bere lurraldearen barruan bizitzarako beharrezko egitea, lagunarte handian zein txikian, eta, beharrian horiek beroriek asebetetzeko gai bilakaraztea>>. Horra hor laburbilduta XX. mendearen hasieran hizkuntza gutxiagotu bat biziarazteko bi habe nagusiak, antzeko egoera bizi duten hizkuntza erkidego guztiak kontuan hartzen dituztenak... eta beharrezko egiteko, sustapen politika indartsuak abiarazteko heldulekuen faltan, bigarrenari, hizkuntza bateratzeko ahaleginari heldu zion, ortografiatik hasita. Izan ere, Sabino Aranaren hitzak hartuz: <<Begiratu

euskarari buruz edo euskaraz idazten duten egileen multzoari, eta ozta-ozta aurkituko dituzue hotsak irudikatzen ikur grafiko berak erabiltzen dituzten idazle bi. Ez da inongo aginterik ezagutzen, eta hori hain da egia, ezen esan bailiteke idazle bakoitzak bere ortografia sistema berezia darabilela>>.

Bistan da, euskararekin loturiko ikasketen egoerak, Sabino Aranaren jazarpenak – tartean kartzelaldiak–, giro politikoak, juzkuek, aurreiritziek eta hizkuntzekiko ikuspegi mugatuek ezinezko egin zutela ahalegin hori bururaino eramatea –horretarako, beste hirurogei urte pasatxo behar izan ziren–, baina eginiko proposamenaren meritua ezin ken dakiok Sabino Aranari. Aitzitik, esandakoak gaurkotatzen ez duela galdu ere esan liteke, batasunean eginiko bide malkarrear, atzeranzko urratsak ikusten baitira bazterretan. Sabinoren berbetan: <<Berriz ere euskaldunok, nor bere buruaren jabe izan nahi eta geure buruaren kaltetan ari gara!>>.

Abandoarraren jaiotzaren ehun eta berrogeita hamargarren urteurrenean, Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak Sabino Aranak, Hendaian, 1901eko irailaren 16an eginiko txostena aztertzeko, euskararen bilakaeraz eta erronkez gogoeta egiteko Bilbon, Euskaltzaindiaren

egoitzan, 2015eko apirilaren 17an eginiko mintegian aurkezturiko txostenak argitaratzeaz gain, askotariko iritziak batu nahi izan dituzte *Hermes* aldizkariaren ale berezi honetan. Honakoa ere berrogeita hamargarrena dena... eta hori beste euskalari handi bat, Koldo Mitxelena, jaio zela ehun urte betetzen diren urtean.

Azken horrek<sup>1</sup> honakoa idatzi zuen: <<Ez da aski gure hizkuntzaren batasuna euskarak iraun dezan, ez hurrik eman ere; ez da aski, baina premiazkoa da, batasunik gabe ez baitu iraungo, bizi garen oraingo eta biharko mundu honetan. Batasuna eginik ere, gal daiteke; batasunik gabe galdua dago alde aurretik... Hizkuntza ez da hor goian bi hegalez airean dabilen izpiritu mehea (hots, gorputzik ez duen sistema baten eskema soila), baizik eta hemen behean, gizatalde batean, oinak landaturik dituen zer bizi eta sendo bat: gizartean bizi da, hiztunengan; hiztunak ditu jasaile, hiztunek bizi dute. (...)>>... amaierarik ez duen kateari segida emanez, Sukarrietan ehortzita dagoenak esanikoari, <<denon esku dago euskararen bizia>> baieztapenari, hain zuzen.

1. Mitxelena, K., 1970, "Pro domo", Egan: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte-ko Buletinaren euskarazko gehigarria, 1-3, 11-26.

# LA AMPLIA PERSPECTIVA DE SABINO ARANA

**N**o hemos venido a hacer la autopsia de un cadáver antes de que se descomponga, para dejar descrito su admirable organismo a los que hayan causado su muerte y en la esfera de la vida pretendan sustituirlo. Esta declaración fue pronunciada por Sabino Arana en Hendaia, el 16 de septiembre de 1901. De hecho, la influencia de la persona más célebre nacida en el antiguo Abando hace ahora ciento cincuenta años no se limitó exclusivamente al nacionalismo o a la inspiración de una conciencia nacional y a la creación de unos componentes o símbolos de un sujeto nacional; también se ocupó de materias relativas al euskera, en las que el eje principal de su labor reside en los esfuerzos por revitalizar nuestra lengua.

A finales del siglo XVIII, en los comienzos de la Revolución Francesa, sólo un cuarto de la población de ese territorio hablaba francés... pero después de proclamar los derechos humanos, en nombre de la igualdad, los nuevos gobernantes pusieron en vigor la ideología de la lengua oficial única. Ese acontecimiento tuvo una amplia repercusión en Europa, especialmente en aquellas comunidades lingüísticas que hacían pervivir a duras penas la lengua propia, caso del euskera. En ese contexto, a lo largo del siglo XIX, Francia y España emplearon todos los instrumentos de los que disponían entonces, e incluso generaron otros nuevos –por ejemplo, la escolarización obligatoria– para concebir un sujeto nacional único y unificado... que no se circunscribió a la lengua y a la cultura, sino que se tradujo en una actividad organizada e incesante para borrar las características diferenciadas de cada territorio.

Esa forma de proceder, la transformación de la actividad económica, el fortalecimiento de las

ciudades, los movimientos migratorios derivados de la Revolución Industrial, la falta de conciencia hacia la lengua y cultura propias –y en especial, la postura de la clase gobernante en la época–, la carencia de un modelo unificado y otros muchos factores debilitaron la comunidad lingüística del euskera, en tal medida que a lo largo del siglo XIX los toques de campana por su muerte se oían cada vez con más frecuencia y más sonoridad... Sin embargo, Sabino hizo caso omiso al estrépito que propagaban las campanas. No le concedió un solo segundo a la resignación y no cedió un ápice ante lo que parecía imposible. Al contrario, quiso revitalizar la lengua basándose en el legado del pasado y otorgarle un futuro. Estudió euskera y en Hendaia dijo lo siguiente: <<(El euskera) No es un cadáver, es un enfermo el que tenemos delante, siquiera moribundo, y porque le amamos no nos resignamos a desahuciarle, sino que a estudiar su enfermedad venimos para darle la salud>>.

**Sabino Arana no le concedió un solo segundo a la resignación y no cedió un ápice ante lo que parecía imposible. Al contrario, quiso revitalizar la lengua basándose en el legado del pasado y otorgarle un futuro**

Y para procurar su mejoría, subrayó dos condiciones: <<hacerlo necesario para la vida, en grande o en pequeño círculo, dentro de su propia tierra, y hacerlo apto de satisfacer esas mismas necesidades>>. Ahí tenemos de forma resumida los dos pilares fundamentales para revitalizar una lengua minorizada a comienzos del siglo XX, los mismos que toman en consideración todas las comunidades lingüísticas que se encuentran en la actualidad en una coyuntura similar... y para hacerla necesaria, a falta de cimientos para iniciar políticas de promoción consistentes, se aferró a la segunda condición, es decir, acometió la unificación de la lengua, comenzando por la ortografía. Dicho en palabras de Sabino

Arana: <<Extended la vista por los autores que en euskera escriben o de él tratan y apenas hallaréis que estén conformes en la representación gráfica de las voces. No se reconoce autoridad alguna, y hasta tal punto es esto cierto, que bien puede decirse que cada autor posee su particular sistema de ortografía>>.

Es evidente que la situación de los estudios relacionados con el euskera en aquella época, la persecución al propio Sabino Arana –periodos de encarcelamiento incluidos–, el ambiente político, los juicios, prejuicios y las visiones limitadas sobre las lenguas hicieron del todo imposible dar término al esfuerzo iniciado por Arana –para eso, tuvieron que pasar algo más de sesenta años–, pero no se le puede negar una pizca de mérito a su propuesta. Al contrario, podría afirmarse que las declaraciones de entonces no han perdido actualidad, puesto que en el escabroso camino de la unificación, también se perciben pasos hacia atrás en los alrededores. Dicho en palabras de Sabino: <<¡También aquí el vasco ha querido ejercitar en su propio daño su característica independencia individual!>>.

En el ciento cincuenta aniversario del nacimiento del vecino de Abando, la Fundación Sabino Arana y Euskaltzaindia, al objeto de analizar el informe presentado por Sabino Arana en Hendaia el 16 de septiembre de 1901, han publicado las ponencias presentadas el 17 de abril de 2015 con

motivo del seminario que se celebró en la sede de Euskaltzaindia para reflexionar sobre la evolución del euskera y sus retos actuales y, además, han querido recoger diversas opiniones relativas al tema en este número especial de la revista *Hermes*, que cumple su edición número cincuenta. Todo ello en el centenario del nacimiento de otro vascológico ilustre, Koldo Mitxelena.

De Mitxelena<sup>1</sup> es la cita que viene a continuación: <<La unificación de nuestro idioma no es suficiente, ni remotamente, para que perviva el euskera, no es suficiente, pero sí necesaria, puesto que, sin unidad, no pervivirá en este mundo de hoy ni el de mañana. Aun logrando la unificación, puede perderse; sin unidad, está perdido de antemano... El idioma no es un espíritu sutil que vuela con sus alas desplegadas en el alto cielo (es decir, mero esquema de un sistema incorpóreo), sino un ente vivo y vigoroso que asienta sus pies aquí abajo, en un grupo humano: vive en la sociedad, en los hablantes; ellos son su soporte, ellos le dan la vida. (...)>>... y que da continuidad a una cadena sin fin, en la línea de la afirmación expresada por el que yace en Sukarrieta: <<en las manos del vasco está la vida del euskera>>.

1. Mitxelena, K., 1970, "Pro domo", Egan: Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del País, 1-3, 11-26.



## ARTISTAREN KURRIKULUMA

“Goiri Lopez de Arkaute'tar Ibon Deustuko Errepublika Independentean jaio zen 1965ean, baina urte batzuk geroago Begoñako Errepublika Independentera aldatu zen. Txikitatik, marrazki baragarri eta kokoloak egin eta pellokeriak margotzen ditu, eta lehen-go lepotik burua segitzen du. Bizkaiko Artisten Elkarteko kide arduragabe batzuek gogaturik, marrazkilaritza- eta akuarela-eskoletan izan zen Bilboko Berreginen Museoa, baina emaitzak zorigaldukoak izan ziren. Bide onera etorri barik, Arkitektura ikasten hasi zen Donostian 1983an, baina arrakastarik ez zuen izan eta, bi urte geroago, ikasketa horiek utzi eta Leioako Arte Ederretako fakultatean matrikulatu zen. 1991n lizentziatu zen, Ikus-entzunezkoen espezialitatean. Irudigile, infografo, Lanbide Heziketako marrazketa-irakasle, DBHko eta Batxilergoko irakasle aritu da, baita aldizkariak editatzen eta maketatzen ere... Margotzen jardun du beti eta bere margolanak kultur aretoetan, galerietan eta hainbat zulotan erakutsi ditu. Gaur egun, Abandoko Errepublika Urean bizi da”.

